



## 07 APIRILA

- Igandea **01**
- Astelehena **02**
- Asteartea **03**
- Asteazkena **04**
- Osteguna **05**
- Ostirala **06**
- Larunbata **07**
- Igandea **08**
- Astelehena **09**
- Asteartea **10**
- Asteazkena **11**
- Osteguna **12**
- Ostirala **13**
- Larunbata **14**
- Igandea **15**
- Astelehena **16**



- Astelehena **30**
- Igandea **29**
- Larunbata **28**
- Ostirala **27**
- Osteguna **26**
- Asteazkena **25**
- Asteartea **24**
- Astelehena **23**
- Igandea **22**
- Larunbata **21**
- Ostirala **20**
- Osteguna **19**
- Asteazkena **18**
- Asteartea **17**
- Astelehena **16**



## EUSKO JAURLARITZAREN, KATALUNIAKO GENERALITATEAREN ETA GALIZIAKO XUNTAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZAMEN HISTORIKOA

Hiru gobernuen artean hizkuntza politika gaietarako sinatu duten lehenengo lankidetzaz hitzarmen orokorra da

Akordio honi esker, esperientziak trukatu eta aztertu, eta egitasmoak eta jarduerak bultzatuko dira, hizkuntzen arteko berdintasun sozial handiagoari begira

**E**uskadiko, Kataluniako eta Galiziako gobernuak konpromiso tinkoa erakutsi dute berriz ere beren hizkuntza berezkoak (euskara, katalana eta galegoa, hurrenez hurren) biziberritzeko eta haien erabilera normalizatzeko lanean.

Hiru gobernuen ustez, hizkuntzaren alorrean elkarlanerako esparru egonkor eta iraunkorra zehaztea eta garatzea benetan eraginkorra eta positiboa izango da, beti gobernu bakoitzaren politikak eta bereizgarritasunak osoki errespetatuz. Esparru horri esker, esperientziak trukatu eta egitasmoak eta jarduketak bultzatuko dira, hizkuntzen berdintasun sozial handiago bati begira.

Eusko Jaurlaritzaren, Kataluniako Generalitatearen eta Galiziako Xuntaren Hizkuntza Politikarako arduradun nagusiek, hots, Patxi Baztarrikak, Miquel Pueyo eta Marisol Lopezek, hizkuntza politika gaietarako hiru gobernuen arteko hitzarmen orokorra izenpetu dute. Lehen aldiz, hiru gobernuak bat egin dute lankidetzaz hitzarmen historiko honetan elkarrekin berezko hizkuntzen alde jarduteko.

## ELKARLANAREN BALIOA

Elkarlanean aritzea dela eta, Hizkuntza Politikarako sailburuordeak pasa den martxoaren 16an Bilbon egindako ekitaldian honakoa azpimarratu nahi izan zuen: "gure berezko hizkuntzen, euskararen, katalanaren eta galegoaren biziberripenaren eta normalizazioaren alde jardungo dugu hiru gobernuok. Nahiz eta bakoitzaren egoera soziolinguistikoa era batekoa izan, hiru herrialdeok iraganen baino intentsitate eta zabaltasun handiagoarekin elkarlanean aritu gaitzke, esperientziak eta jarduketak trukatzuz".

Baztarrikaren hitzetan, "onura ugari ekarriko ditu lankidetzaz hitzarmen honek: alde batetik, hiru herrialdeetan lantzen ari garen hizkuntza-normalizaziorako prozesuei bultzada emango die; eta, bestetik, etorkizunean euskarak, katalanak eta galegoak Espainiako estatuan tratamendu hobea, tratamendu duinagoa eta errespetu handiagoa jaso dezaten sustatuko du".

## HIZKUNTZA OFIZIAL GUZTIEN ERABILERA SUSTATUZ **02**

Espainiako estatuko errealitatea, estatu eleanitz batena dela adierazi nahi da hitzarmen honekin, Kataluniako Generalitatearen ordezkariak esan zuen bezala, "espainiar estatuan herritarren %40, gaztelaniaz gain beste hizkuntza bat hitz egiten den lurraldeetan bizi da". Ordezkari katalanaren esanetan, "lege konstituzionalean aipatutako berdintasuna gauzatzen ez den bitartean, herritar horiek, neurri batean, ez dituzte beren eskubide osoak izango".

Hori dela eta, hiru gobernuak estatuak eleanitzasun hori benetan onartu eta bere egin dezala eskatzen dute, eta, horren ondorioz, modu aktiboan joka dezala hizkuntza ofizial guztien erabilera sustatuz.



## **03** HARTUTAKO KONPROMISOAK

Akordio honen argitan, estatuak bere erakundeetan gaztelania ez den beste hizkuntza ofizialen erabilera ahalbidetzeko neurriak har ditzan eskatuko dute, bereziki alor hauetan: Kongresuan, Senatuan, Justizia Administrazioan, sozietate estatuetan, zerbitzu-enpresa publikoetan (Posta eta AENFE, adibidez) eta titularitate publikoa duten estatuaren eremuko hedabideetan.

Hezkuntzaren alorrean, Eusko Jaurlaritzak, Kataluniako Generalitateak eta Galiziako Xuntak elkarlanean jardungo dute berezkoak dituzten hizkuntzen historia eta kulturaren irakaskuntza ziurtatzera aldera neurriak har ditzan estatuak. Pueyok honen inguruan adierazi duenez, bere gobernuak "oso pozik dago Alemaniako 22 unibertsitateetan gure hizkuntza eta kultura erakusten dela jakinda, baina gustatuko litzaiguke katalanak, euskarak eta galegoak bere lekua izatea Espainiako unibertsitate eta ikastetxeetan, estatuko ikasleentzat hizkuntza arrotzak ez izateko. Ziur dira horrela aurrerapauso handia emango litzatekeela kulturari, elkarbizitzan eta elkarren arteko errespetuan eta ezagutzan".

Horretarako, behar diren egintzak sustatuko dituzte, eskualdeetako eta eremu urriko hizkuntzarik ez dagoen Espainiako lurraldeetan bizi diren ikasleentzako eskola-programak Espainiako eskualdeetako eta eremu urriko hizkuntzen presentzia, horien historia eta izaera tradizionala jaso dezaten. Orobat, behar diren egintzak sustatuko dituzte, estatuko unibertsitateetan berezko hizkuntzen ikaskuntza eta irakaskuntza bultzatu daitezkeen.

Hizkuntzaren erabilera sozialari dagokionez, euskararen, katalanaren eta galegoaren erabilera areagotzeko begira, herritarren sentsibilizatzeko estrategiak trukatzeko dizkiote elkarri, baita hedabideen alorreko politikari dagokionez ere.

Hizkuntzak eta kulturak nazioartean zabaltzeko dagokionez, berriz, kultura ekoizpenak eta horien sortzaileak nazioartean zabaltzeko estrategiak sustatuko dituzte, eta nazioarteko hedapen hori baliatuko dute, haien hizkuntzen eta kulturen izen ona munduan zabaltzeko. Era berean, euskara, katalana eta galegoa beraien mugetatik kanpo ere presente egon daitezkeen, estrategiak bultzatuko dituzte.



Harturiko konpromisoak 2009ko abenduaren 31 arte egongo dira indarrean. Hala eta guztiz ere, hitzarmena berariaz adierazi gabe ondoko ekitaldian urtez urte luzatzen joango dela ulertuko da, beste hitzarmen berri bat indarrean jarri arte, edo sinatzaileetako batek hitzarmenaren amaiera iragartzen duen arte.

Hitzarmenaren sinatzaileek Espainiako estatuko gizartearen izaera eleanitza azpimarratu ondoren, agerian utzi zuten Espainiako estatuan gaur egun oraindik ez datozela bat aginte zentralen jardura eta estatuko legalitatea hizkuntza kontuetan. Hori dela eta, hizkuntza politikarako arduradunek hau adierazi zuten: "proposatzen edo eskatzen duguna ez da aparteko ezer: Konstituzioan jasotako obligazioak betetzea esan nahiko luke alde batetik, eta Europako Hizkuntzen Karta betetzeko Europako Kontseiluak adierazitakoa aplikatzea, bestetik".

## "BANANDU EZ, HIZKUNTZEK INTEGRATU EGITEN GAITUZTE" **04**

Katalanak, galegoak eta euskarak gaztelaniaren ondoan bizi duten mendekotasuna lankidetzak-hitzarmen honi esker errazago gaindituko dutelakoan daude Eusko Jaurlaritzak, Kataluniako Generalitatea eta Galiziako Xunta. "Ez da ezereen edota inoren aurkako prozesua", adierazi zuen Hizkuntza Politikarako sailburuordea den Patxi Baztarrikak. "Ez da, inola ere, gaztelaniaren aurkako borroka. Prozesuaren helburua gure hizkuntzen arteko berdintasun soziala da; izan ere, banandu ordez, hizkuntzek integratu egiten gaituzte", gaineratu zuen. Hiru gobernuak hainbat eskaera egin zitoten estatuari; hala nola, berdintasun eta integrazio handiagoa, kohesio sozial hobea, bizikidetzak hobea, komunitateen arteko ulergarritasun hobea, eta gizarte askeen, demokratikoen eta modernoaren berezko desberdintasuna eta aniztasuna gehiago errespetatzea.

# euskararen Berripapera

## GALESEKO HAINBAT ADITU ETORRI DIRA EUSKAL HERRIRA, EUSKARA HELDUEI NOLA IRAKASTEN ZAIEN AZTERTZERA



**O**tsailaren 13tik 16ra arte hamar aditu galestar izan dira HABEn helduen euskalduntze-alfabetatze jardura aztertzen. Galestarrak lehenago ere izan dira gurean hizkuntza-normalizazioaren inguruko gaiak jorrotzen. Oraingoan xede jakin batekin etorri dira. Hain zuzen ere, helduei hizkuntza, kasu honetan euskara, irakasteko metodologia, materialak eta antolaketa aztertu nahi izan dituzte, eurak ere galesera irakasteko sistema eraberritzen murgildurik baitaude.

Lau egunotan, beraz, bete-betean murgildu dira helduen euskalduntze-alfabetatzean. Batetik, HABEk eskaintzen dituen zerbitzuen eta euskaltegien egituraketaren berri zehatza jaso dute; bestetik, euskararen has-tapenak ezagutzeko 3 orduko eskolak hartu dituzte eta, azkenik, hainbat euskaltegi (Urumea, Maizpide, AEK eta Ulibarri) bertatik ezagutzeko parada ere izan dute.

Arreta handiz jaso dituzte emandako azalpenak eta ikasitako euskara apurra praktikatu dute. Oro har, harririk geratu dira helduen euskalduntze-alfabetatze arloan HABE erakundea egiten ari den lanarekin. Hitz batean, eta euren esanetan, uste baino gehiago ikasi dute, baina oraindik asko omen dute ikasteko, Euskal Herrian euskararen irakaskuntza nola bideratzen ari den ikusi ondoren.

Galestarrak Euskadira etorri izana ez da kasualitatea. Izan ere, bada parekotasunik bi herrialde hauen artean hizkuntzaren normalizazioari dagokionean. Euskara eta galesera hizkuntza gutxituak izanik, sendoak eta arras hedatuak daudenak baitituzte bizikide: gaztelania eta frantsesa euskarak eta ingele-sa galeserak.

Helduen hizkuntza-irakaskuntzaren antolaketan, baina, bada alderik. Izan ere, gurean ez bezala, galeseraren kasuan ekime-nak oso sakabanatuak eta norbanakoak izan dira oraintsu arte. Gure artean izan ditugun hamar galestarrak eraberritze-fase honetan eratu nahi dituzten sei irakaskuntza zentro batekoak dira, hain zuzen Swanseakoak.



Datu pertsonalak babesteko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa betez, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak jakinarazten dizu zure datu pertsonalak fitxategi automatizatu batean sartuko ditugula, ondoren, agerkari hau zabaltzeko eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren zenbait argitalpenen berri emateko. Aipatutako Lege horretan jasotzen den moduan, datuok ikusi, zuzendu edo ezabatu nahi dituzula edo ez dituzula jarri nahi adierazteko, helbide honetara jo dezakezu: Kultura Saileko Euskara Sustatzeko Zuzendaritza / Donostia kalea, 1 - 01010 Vitoria - Gasteiz

Euskararen Berripapera zure etxean jaso nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan:  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza / Donostia kalea, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)  
Tel.: 945 01 81 16 berripapera@ej-gv.es

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Viceconsejería de Política Lingüística

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Legezko gordailua: VI-572-1992  
ISSN: 1138-3038